

45 ■ Arte Ederretako ikasleen lanak

EHUko ikasleek eginiko ikus-entzunezko obrak ikus daitezke Bilboko BBVA aretoan.



46 ■ Asier Mendizabalen erakusketa

Certakizun jakinetan oinarritutako 'M-L' proiektua eskegiko dute Bilboko Carreras Mugica galerian.

Abbadia saria musika maisuari

Imanol Urbietara sarituko du Gipuzkoako Foru Aldundiak; Hemendik aurrera saria bi urtetik behin emango dute

AMAIA ELIZONDO
Donostia

Imanol Urbietara musikagile eta musika irakasle gipuzkoarrak jasoko du aurtengo Anton Abbadia saria Gipuzkoako Foru Aldundia- ren eskutik. «Bere lan berritzaile- rengatik eta bere bokazioarengatik saria merezi duela uste dugu», adierazi du Maria Jesus Aranburu Kultura eta Euskara diputatuak. Foru Aldundian, hilaren 30ean, egingo duten ekitaldian jasoko du saria. Albisteak «oso pozik» hartu duela azaldu du diputatuak. Abbadia sariak euskararen erabilera sustatzen duten elkarte edo pertsonak saritzen ditu.

Urbietara Zarautzen (Gipuzkoa) sortu zen 1934an. Arantzazun eta Erroman egin zituen bere lehen ikasketak. Ondoren, Valentziako Unibertsitatean Filosofia ikasten aritu zen. Musikako ikasketak, aldiz, Donostiako Musika Kontserbatorioan egin zituen. Musika bere bizilerroa izango zela ohartu zen orduan. Gaztetatik Zarauzko Irrintzi musika taldean ibili zen. Abesbatza eta musika taldeak ere sortu zituen, gainera.

Oleskariak zortzikoteko kide izan zen, baita Naya orkestrakoa ere. Dantzaldi ugarian entzun ziren azken talde horren doinuak, erromeri eta festetan batez ere. Baina ia bere bizitza guztia haurrekin lanean eman du. Hasieran, haurrentzako kantuak eta ipuinak sortzen ibili zen. Umeentzat euskaraz egin zen lehen grabazioa berak kaleratu zuen *Haur kantariak* izenburupean, 1976an.

MUSIKA ESKOLAK SORTU. Gipuzkoako lehen musika eskolak Urbietaren eskutik sortu ziren. Lehena Zarautzen ireki zuen, eta gero etorriko ziren Hernanikoa eta Donostiako *Xirula Mirula*. Haurren heziketan musikak zuen garrantziak jabetuta, hainbat ikerketa egiteari ekin zion. Pedagogia arloan diskoak eta liburuak kaleratu ditu hainbat urtetan. Egun, ikastola askotan bere materialak, ipuinak eta diskoak erabiltzen dituzte haurrei musika irakasteko.

«Musika bidea da, ez helburua. Nik ez nuen ezer asmatu, asmatuta zegoena ikasketetan aplikatu baizik» esan ohi du askotan. Urbietara berritzailea izan da haurrentzako liburuak egitean. Euskal Herriko ibaiak eta mendiak irakasteko, bakoitza bertako doinuekin egokitutako kantuak sortu zituen. Hala, haurrek gogoan izateko errazagoa da. Matematika irakasteko ere antzeko materiala sortu izan du.

Psikomotrizitatea musikaren laguntzaz lantzeko ikerketak egin izan ditu. Haurrentzako lanak egitea nahiago izan du, goi mailako musikagintza alorrean aritzea baino. Solfeo ikasketetarako ere, liburu eta diskoak eginda ditu, haurrei ikasketak errazago egiteko helburuarekin. Lan guztiak euskaraz egiten ditu.

Ez da inoiz musika elitistaren aldekoa izan Urbietara. Musika bitarteko soilak dela azaltzen du, ikasteko, psikomotrizitatea bultzatzeko edota bizitza alaiagoa egin ahal izateko. Bere ibibidean egin duen lan bikainarengatik Zarauzko Udalak Zarauzko Kultur Merezimenduari domina eman zion 1996an. Bere herriak eta herritarrek merezi zuen omenaldia egin



Imanol Urbietara musikagilea eta musika irakaslea. JUAN CARLOS RUÍZ / ARCAZHO PRESS

zioten. Izan ere, lan handia egin du irakaskuntzan.

ALDAKETAK SARIKETAN. 1996tik Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero egin ohi du Anton Abbadia saria. Aurtengo sariaketa prestatzen hasten ziren.

aldetik hor amaitzen zen lan guztia. Irabazleari 12.100 euroko diru kopurua ematen zitzaion, eta hurrengo sariaketa prestatzen hasten ziren.

Imanol Urbietari saria emateko ekitaldia egingo dute aurtengo. Diru kopuru berbera jasoko du, baina Diputazioaren lana ez da hor bukatuko. Izan ere, hurrengo urte-

an ez diote inori Abbadia saria emango. Urbietaren lanak plaza- ratuko dituzte, nahiz eta oraindik ez dakiten zer aterako duten: «Orain aztertzen ari gara zein bidetarik eta nola egin genezakeen hedakuntza hori, baina oraingoz esan dezakegu informazio eta jakintza teknologien bitartez egingo dako proiektu bat izango dela», azaldu du Aranburuk.

Aldaketa horrekin, Abbadia sariaren antolatzaileek sarituen lanak gizarteratzeko aukeraz baliatu nahi dute. «Hemendik aurrera honelajokatuko dugu: urte batean saria eman, hurrengo urtean sari- dunaren lana sustatu». Bestalde, sariaren irabazleak aukeratzeko geroz eta zailagoa dela azaldu du. «Erabakia hartzea ez da batere erraza izan, ziurrenik beste urteetan bezala. Mahai gainean izen eta erakunde ugari genituen eta guztiek zituzten bere merituek».

Bitartean, eskoletan Urbietaren kantuak eta liburuak erabiltzen jarraituko dute. Haurrentzat musika lagungarria da txiki-txikitik Urbietarentzat: «Konturatu naiz, gainera, musika zerbait bada haurrentzat, hasieran terapia hutsa dela. Hiru urteko haurrekin hainbeste urte pasa ditut, eta nik ez daukat pentsatzerik zerbait asmatu dut eta katedratikoa izango naiz». Bere ibilbide luzean musika irakasteko modu guztiak ikertu ditu, eta, ziurrenik, aztertzen jarraituko du orain ere, bere pasioa horixe baita.

Bertso saioa

Bertso saioa

Bertso saioa

Bizkaiko bertso agenda:

azaroak 17

19:00

MAÑARIA

Herri Taberna taberna

"EMETIK"

Bertso kabareta

I. Ibarra, O. Erbeita, O. Perea

azaroak 22

19:00

BILBO

"La bolsa" Kultur etxea

"Apaizac Obeto"

Itsasoa, hitzak eta irudiak

Jon Maia

Larku

94 940 140 140

www.larku.com

G PUNTUA

1. FINALAURREKOA

Azaroak 17, larunbata

ESKORLATZA

Kiroldegia,

18:00etan

Iratxe Maiz, Iñaki
Jon Alberdi,
Jon Maiz,
Kestutze Agirretxe,
Jon Agirre,
Borja Garritano

www.gpuntua.com

berria